Gourmets Azoka abangoardiaren erakusleihoa Gourmets Azoka Europako delicatessenen azoka nagusia da . Bere hogeita hamai-kagarren edizioan 1.630 erakustoki izan ditu, 40.000 gourmet produktu baino gehiago erakusteko. Zalantzarik gabe, nekazaritza elikagaien industriako azken joerak ezagutzeko erakusleiorik handiena da. Pasa den urtean azoka honek 93.346 bisitatik gora izan zuen. Horietatik %14 atzerriko 71 herrialdetakoak izan ziren. Gourmets Azoka banatzaile profesionaleri (inportatzaileak/esportatzaileak, saltoki handiak, e-commerce, txikizkako merkataritza, elikadura kateak eta HORECA kanalean espezialistak), ostalaritzako profesionaleri eta kalitateko elikaduraren segmentuan espezialistei zuzenduta dago.

“Euskadi Basque Country” standean egon diren enpresak: Orotara Euskadiko Orotara Euskadiko 24 elikagai enpresa eta upategik parte hartu dute aurtengo Gourmets Azokan Euskadi Basque Country markaren barruan.

- Alaiza Brewing
- Andres Eizaguirre
- Artomaña txakolina
- Alkorta bakailaoak
- Garcia De Olano upategiak
- Baque kafeak
- Ortiz kontserbak
- Dastatzen
- Ederpesca eta deribatuak
- Añanako Gatz Harana Fundazioa
- Gastronorte
- Eizaguirre hanburgesak
- Hijos de Jose Serrats
- Idiazabal
- Izarmendi txakolindegia
- Licores Barañano
- Luberri- Monje Amestoy familia
- Okendo txakolina
- Petritegi sagardoak
- Rafa Gorrotxategi 1680
- Salica-Campos
- Astarbe sagardoak
- Vascolac
- Zubelzu Piparrak

Marka horietaz gain, beste 10 euskal enpresa eta upategik ere parte hartu dute Gourmets Azoka 2018an, modu indibidualean.



Handitu da Euskal Sagardoaren presentzia merkatuan, Jatorri Izendapenaren proiektuari 4 milioi litro eta 47 sagardotegi atxikita

testua eta argazkiak A. E.

Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea, pozik agertu zen 2017an sagardo uztaren emaitza bikainengatik, eta azpimarratu nahi izan zuen exekutibo autonomoak sektore horri erabateko babesa ematen diola. Euskadiko sagardoa, sailburuak esan zuenez, “aukerez beteriko unean dago, izan ere, duela justu urtebete Euskal Sagardoa Jatorri Izendapena proiektua abian jarri zen eta Eusko Jaurlaritza hasieratik inplikatu da proiektuarekin, sektorearekin eta beste erakunde batzuekin elkarlan estuan Jatorri Izendapena bultzatzuta. Sektorea batzea, sagardoaren kultura sustatzea, sagar ekoizleei eta sagardogileei bultzada bat ematea eta kontsumitzaileei kalitatea duen bertako produktu bat eskaintzea da gure helburua -ziurtatu zuen.

Sasoiko, kalitateko eta jatorriko euskal produktu honen eta beste batzuen sustapena da –esan zuen– Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoak (GEPE) oinarri dituen zutabeetako bat. Izan ere, gure lurraldean nekazaritza-ko elikagaien balio katea –ekoizleengan-

dik kontsumitzaileengana– indartzeko eta bultzatzeko exekutibo autonomoak lege-gintzaldi honetan lehenetsiko dituen lan ildo nagusiak markatzen ditu planak. Plan honek bertako sagarraren ekoizpena handitzen lagunduko duten tresnak eman ahal dizkio sektoreari, eta horren ondo-

rioz Jatorri Izendapena duen produktua- ren ekoizpena handitu daiteke, baita produ-ktuak merkatuan duen presentzia eta produktua- ren salmentak ere.

Gogoeta urteak

Urteetako gogoeta eta lanaren ondorioz, 2016ko uda ostean ekin zitzaion Euskal Sagardoa Jatorri Izendapena sortzeko prozesuari. Eusko Jaurlaritzak, merkatua- ren premiei erantzuten dien bertako eta kalitateko produktua bultzatzeko eta sus- tatzeko estrategia baten barruan, oso ondo baloratu zuen proiektua, non sagra- do eta sagar ekoizleen taldeek berresten zuten azken urteetan sagardogileek ber- tako sagarraren alde eta egiaztatutako kalitatea eta jatorria dituen ekoizpenaren alde egindako lana.



Eusko Jaurlaritza prozesu osoan egon da sektorearen ondoan, eta prozesu horren goreneko uneetako batzuk izan dira, esate- rako, sagardoaren sektoreko ekoizle eta egileek eta administrazio publikoen ordezkariak Jatorri Izendapenaren irudia aurkeztu zutenean, 2017ko urtarrilean, eta lehen botilak merkaturatu zirenean, pasa den ekainetik aurrera. Harrez gero, Eusko Jaurlaritzak produktua- ren hobe- kuntzan eta posizionamenduan aurrera egiten lagundu du, hainbat jardunaldi tek- niko eta Donostian eta Bilbon egindako promozio ekintzak bultzatuta, esaterako.

2017ko uztari buruzko datuak

2017ko uztak 12 milioi litro inguru sagra- do egitea ekarri du Euskal Herrian. 2017ko uztak kalitate eta jatorri zigor- sortu zenetik bigarrena izan da, eta azken urteetako emankorrena lurralde guztie-

tan. Euskal Sagardoa J.I.-ko 4 milioi litro sagardo egin dira, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban bildutako 6 milioi kilo sagar erabiliz. 250 hektarea baino gehiago izan dira eta 200 ekoizle baino gehiagok hartu dute parte.

Sagardogileei dagokienez, 47 sagardote- gi izan dira guztira Jatorri Izendapeneko sagardoa egin dutenak: 40 Gipuzkoan, 5 Bizkaian eta 2 Araban.

Euskal Sagardoa J.I.-ko sagardoaren ezaugarriak

Jatorri izendapena duten sagardo botila guztiek bi ezaugarri nagusi dituzte. Alde batetik, sagardoaren %100 bertako sagra- rrekin eginda dago. Hau da jatorri izen- dapenaren helburu estrategikoetako bat da: bertako sagarraren ekoizpena babes- tea eta bultzatzea. Helburu horrekin, 115 sagar barietate onartu dira jatorri izenda-

penaren araudian. Beste aldetik, bigarren ezaugarria kalitatearekin lotura du.

Jatorri izendapeneko sagardo botila guz- tiek kalitate egiaztagiria dute. Frisoro laborategi espezializatua arduratzen da kalitatea neurtzeaz, eta HAZik prozesua egiaztatuko du. Botila sorta guztiek kali- tate kontrolak gainditu behar dituzte, dastatzaile trebatuen bitartez, eta era- kunde ofizialek sagardoaren jatorria egiaztatuko dute, sagarrondotik botilara iritsi arte.

Ekimenean parte hartzen duten erakun- deek nabarmendu dutenez, jatorriko izendapenaren lorpen nagusietako bat izan da sektorearen batasuna, sagardoa- ren ekoizpenarekin zerkusia duten elkar- te guztiek, hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak indarrak batu baitituzte.



Idiazabal eta Erronkari Jatorri izendapenetako gaztagintzan koordinatuta egiten duten lana aurkeztu dute esnetarako Ardi Latxen sektorearen balio kateko agenteek

testua eta argazkia A. E.

Esnetarako Ardi Latxen sektorearen balio katea osatzen duten agenteak elkartu ziren INTIAko egoitzan, artzaintzatik hasi eta Idiazabal eta Erronkari Jatorri Izendapenak dituzten gaztak egin arte elkarrekin egiten duten lanaren berri emateko Latxa Esnea Elkartek antolatutako ekitaldian. Benetako ahalegina, zeinarekin kalitateko eta gero eta iraunkorragoa den produktu bat lortzen ari den, ardi latxaren esneaz egindako gazta, alegia.

Aurkezpenean, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Oroz eta Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko sailburua, Isabel Elizalde, egon ziren sektoreari babesa ematen diotela erakusteko eta balio kateko agente guztiak elkarlanean eta koordinatuta egiten ari diren lanaren alde agertzeko berriro ere. Duela ia urtebete hasi zen exekutibo bien arteko lankidetzak, Esnetarako Ardi Latxen sektorea Dinamizatzeko Plana abian jartzearekin batera, non, besteak beste, marjinak alde guztien artean banatzeari helden zaion, balio katearen maila guztien etorkizun lehiakorra eta iraunkorra bermatu ahal izateko. Oroz sailburuordeak azpimarratu zuenez, “artzaintza ere bada enplegua eta abe-

rasasuna sortzen duen jardura ekonomikoa. Elikaduraren balio katearen adibide garbia da. Lehen sektoretik abiatzen den jardura da, larreen kudeaketarekin eta ardiekin zuzenean egindako lanarekin hasten da, eraldaketatik igarotzen da eta gastronomiaraino iristen da.” Orozek Nafarroan esan zuen Ardi Latxaren sektorearen balio kateko agente guztien arteko koordinazioa dela Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Planak bilatzen dituen helburu estrategikoetako baten erakusgarri bat; izan ere, koordinazio horri esker lortzen da “Elikaduraren balio kateko agente guztien hobekuntza orokorra, berrikuntzaren bitartez eta ezagutza berriak sartuz eta agente guztien elkarlanaren bidez, elikagai osasungarriak, seguruak, bereziak eta iraunkorrak lortzeko” – gehitu zuen sailburuordeak.

Ardi Latxaren esnea
Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan 328 ganadutegi daude guztira, eta denek batera ia 5 milioi litro esne saltzen dituzte Jatorri Izendapeneko gaztak egiteko. Latxa Esnea esnetarako ardi hazleen elkarteak eskaintzen duen ia esne guztia hiru gaztandegi hauei saltzen die: Quesos Larra, Erronkari Jatorri Izendapeneko, eta Gaztandegi Dorrea eta Buruaga Arditegia, Idiazabal Jatorri Izendapenekoak. Latxa Esnea, ardiaren esnearen Ekoizleen Elkarteak 2011ko azaroan sortu zen eta Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan kokatutako ardi latxen artzainekin soilik osatua. Gaur egun, hogeita hamabost ustiapenekin osatzen da, lau lurraldetan barna sakabatuak.



Bermeo Tuna World Capitala

BWTC proiektu publiko pribatuak hegazuaren balio kate osoaren inplikazioa bilatzen du, bajurako sektoretik hasi atun kongeladoreak eta konserba industria ere barneratzen ditu, gastronomiara iritsi arte. Ekimen honek berme moduan dauka sektorearen aportazio ekonomiko eta sozial garrantzitsua, ozeanoen jasangarritasunerako lehentasunezko ardatza jakintza zientifikoa delarik.



El Txakoli de Euskadi y el Espárrago de Navarra, protagonistas

texto N. Haig · fotografías R. S.

Las Consejeras de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, Arantxa Tapia, y de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local de Navarra, Isabel Elizalde, presidieron un acto de promoción de los productos amparados por denominaciones y certificaciones de origen de Euskadi y Navarra. El acto consistió en un maridaje entre el Espárrago de Navarra y txakoli de las tres Denominaciones de Origen de Euskadi (Araba, Bizkaia y Getaria) que se celebró en el Basque Culinary Center, y que contó con la presencia de los cocineros Hilario Arbelaitz, nombrado recientemente embajador del Espárrago de Navarra, y Javier Díaz, quien realizó lademostración culinaria.

Ambos gobiernos comparten un decidido interés por apoyar la alimentación y la

gastronomía de calidad, que tiene en los productos amparados por denominaciones y certificaciones de origen uno de sus puntos angulares. Tanto la etiqueta navarra Reyno Gourmet como nuestro Euskolabel garantizan la superior categoría de los productos, permiten su implantación e identificación en el mercado, e impulsan su notoriedad y prestigio entre los consumidores. “No debemos olvidar –explicó Arantxa Tapia– que el proceso para que un producto sea distinguido con estas etiquetas de calidad es muy laborioso. Existen unas tareas previas que incluyen, fundamentalmente, estudios del sector productivo y transformador, de los canales de comercialización y de mercado y de la propia naturaleza del producto. A partir de estos estudios se procede a la definición precisa de todas sus características en un reglamento, así como la forma de

producción y comercialización, envasado y etiquetado y sistema de control.” Por su parte, la consejera navarra Isabel Elizalde, quiso destacar que el consumo de espárrago aumenta en los últimos años. “De hecho, las previsiones para este año es que se produzcan 200.000 kilos más que el ejercicio pasado, lo que supone un 13% más. Pero detrás de estos buenos resultados, nos encontramos con el trabajo excelente realizado por los hombres y mujeres del campo que día tras día luchan por conseguir valorizar nuestros productos y continuar cultivándolos articulando así el desarrollo económico, la sostenibilidad y en definitiva la vida del territorio en el que se asientan. Son 452 productores, que proporcionan espárragos a 42 conserveras asentadas también en la zona de producción.



Udapak Arabako Patata kanpaina bukatu du salmentetan berriro errekorra lortuta

testua R. S. · argazkia M. A.

Udapak Arabako Patataren merkatu-ratze kanpainaren itxierako datuak aurkeztu zutuen Carrefour Gorbeian. Datuek erakusten zutenez, salmenten errekorra hautsi da berriro. Izan ere, 5.829.433 kilo patata egiaztatu eta saldu dira Eusko Label eta Euskal Baserri markekin, patataren kalitatea eta jatorria bermatzen duten zigiluak baitira.

Udapa kooperatiba arabarrarentzat, zeinak jada 25 urte egin baititu bertako nekazarien, ingurunearen eta, batez ere, berrikuntzaren alde egiten, salmenten errekor berri hori da "apustu seguru baten baieztapena, eta ez soilik Udaparena, baizik eta, batez ere, bere bezero batzuen –tartean Carrefour, beti Arabako Patataren alde egin duena– eta kontsumitzaileena, Eusko Label eta Euskal Baserri marken kalitatea baloratzen baitakite”. Gainera, ekitaldi berean, Carrefourrek produktuen eta ekoizleen babesa nabarmendu zuen, bertako ekoizpen biodibertsibitatea bultzatuta eta bizilagun bat gehiago garen aldeetan aberastasuna sortarazita, eskualdeko produktuaren sustapenaren bidez. Hori dela eta, akor-

dio bat izenpetu du berriro Udaparekin, Euskal Herriko zentroak patataz hornitze-ko Carrefour markarekin saltzeko, eta kalkulatzen da urte honetan 1.200.000 kilo baino gehiago erosiko dituela. Akordio hau Erosketen gerente Vicente Tortajadak eta Udapako zuzendari komertzial Jesus Manuel Moreno Garzonek izenpetu dute, aurrean zirela Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburua eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako diputatua.

Udapari buruz

Udapa kooperatiba bat da, 1993an sortu zen eta nekazari ekoizleek, enpresa kudeatzaileek eta langileek parte hartzen dute bertan. Udaparen helburua da berritzea, patata freskoan ekoizteko, kudeatzeko eta merkatutzeko prozesuak hobetzeko eta profesionalizatzeko. Ingurunearekin konprometituta gaude eta ingurumena errespetuz tratatzen dugu, hala egiaztatzen baitu kalitatea, ingurumena eta elikagaien segurtasuna kudeatzeko dugun sistema bateratuak, zeinak kontsumoko patataren egokitzapena eta ontziratzea hartzen baitu bere baitan.

Título de especialización en Diseño de Espacios Gastronómicos

En el marco de la creciente pujanza de la gastronomía en Euskadi, la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la UPV/EHU, en Donostia-San Sebastián, tiene previsto ampliar su oferta docente mediante el lanzamiento de un Título de especialización en Diseño de Espacios Gastronómicos. Un nuevo Posgrado dirigido a profesionales del sector del diseño, arquitectura, ingeniería e interiorismo que se centra en el ámbito de la hostelería y la gastronomía y su finalidad es la de complementar el conocimiento de este sector de la economía para aquellos profesionales que deseen adquirir un mayor nivel de competitividad en lo que al diseño, funcionamiento y materialización de entornos gastronómicos se refiere.

Este grado se enmarca dentro del Plan Estratégico de la Gastronomía y la Alimentación de Euskadi con el que se pretende avanzar hacia una alimentación y una gastronomía vasca: Segura, Saludable Singular y Sostenible (social, cultura, económica y medioambientalmente). Si algo caracteriza a nuestra gastronomía, es el respeto por la sabiduría técnica, la creatividad e innovación, la mezcla perfecta de tradición y vanguardia, y por supuesto la cooperación y colaboración.



Eusko Jaurlaritzak Nekazaritza Politika Bateratuaren lanketan Autonomia Erkidegoek partaidetza handiagoa izatea eskatu du

testua eta argazkiak R. S. / M. A.

Eusko Jaurlaritzak erregioen protagonismo handiagoa eskatu du, Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoak lantzeko eta defendatzeko partaidetza handiagoa izan dezaten, eta, NPB berriari dagokionez, Gobernu Zentralari exijitzen dio estatu mailan subsidiaritate printzipioa aplikatzeko beraien eskumen eremuaren barruan eskatzen duten Erkidego Autonomoen alde. ENBA nekazari sindikatuak antolatutako “2020tik aurrerako NPBaren erreformaren klabeak” izeneko jardunaldietan, Eusko Jaurlaritzak baieztatu zuen Euskadik erabateko eskumenak dituela bere lurraldeko nekazaritza politikaren barruan, eta eskumen horiek gauatzeko borondate politikoa dagoela.

Bide horretan aurrera egiteko, Eusko Jaurlaritzak NPBa sakon erreformatzeko jarrera azaldu du, bost puntutan oinarrituta:

- Gaur egungo bi zutabeak mantentzea.
- Merkatuaren krisietan laguntzeko mekanismoak ezartzea.
- Estatu kideen artean funtsak banatzea aurrez zehaztu gabe eta status quo-aren mende egon gabe, baizik eta efizientetzat jotzen den eredura zuzenduta.
- NPBaren kudeaketarako arau orokorretan laguntza eta malgutasun handiagoa eskualdeentzat, haietako bakoitzaren berezitasunei lekua emateko.
- NPBaren eskema iraunkorra bultzatzea, etengabe erformen mende egon gabe.

Bere mintzaldian, nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuorde Bittor Orozek NPBaren gaur egungo garapenaren puntu nagusiak aztertu zituen, izan ere, azken erreforma bere aurreko legegintzaldiarekin batera egin zenez, “Espainiako Gobernuarekin zein Bruselarekin negoziatzea egokitu zitzaigun, bai alderdi estrategikoak argitzeko, bai, sektorearekin lankidetzan, laguntzak definitzeko eta diseinatzeko eta kudeaketa sistemak inplementatzeko, betekizun berrietara egokitzeko.

Ziurgabetasun unea

Ziurgabetasun handiko unean gaudelarik, kontuan hartuta Brexitaren ondorioak, Europar Batasuneko 27 kideek jarduteko lehenetsunez eta etorkizuneko esparruei buruz hartu beharreko estrategia globala, Urte Askoko Finantza Esparru berriaren onarpena, NPB berria inplementatzeko datak eta abar, Eusko Jaurlaritzak, orientazio berri horren aurrean, eskualdeen protagonismo handiagoa eskatzen du, eta galdegin du araudi komunitarioaren garapenak eskualdeei dagokien rola eman dakiela, NPBaren Plan Estrategikoak lantzeko eta defendatzeko. Halaber, Gobernu Zentralari eskatu dio, NPB berriari dagokionez, estatu mailan subsidiaritate printzipioa aplikatzeko beraien eskumen eremuaren barruan eskatzen duten Erkidego Autonomoen alde.

Kezka nagusiak

Araudi berriari buruz Eusko Jaurlaritza gehien kezkatzen duten alderdietako bat da nekazaritzako aurrekontua murriztea eta Lehen Zutabeko zuzeneko ordainketen kofinantzaketa nazionala egotea, baita ere laguntzak murrizteko aukera eta merkatua kudeatzeko neurriei ematen zaien arreta eskasa, izan ere, neurri horiek oso garrantzitsuak dira aurreikusten diren prezioen aldatortasunari, elikadura krisiei, hiru garren herrialdeekiko gatazkei eta abarri dagokienez. Ekitaldian, Eusko Jaurlaritzak nabarmendu nahi izan zuen baita ere Euskadik erabateko eskumenak dituela bere lurraldean nekazaritza politika aplikatzeko, eta hori gauatzeko borondatea duela, bere kudeaketa esparruan NPBaren erreforma aplikatzeko, bai gure baserritarrentzako zuzeneko laguntzei dagokienez, bai landa ingurunearen eta sektorearen garapenerako laguntza estrukturaleri dagokienez, eta bere muga araudi komunitariotik eratorriko den arau esparrua baino ez dela.



Azti Indiako Ozeanoan atunaren iraunkortasuna bermatzeko lanean ari da Seychelleetako bulegoan

testua eta argazkiak A. T.

Azti Indiako Ozeanoko hesi tropikalaren atun flota babesten ari da, gehiena euskal jabetza-koa izanik, Seychelleetako hiriburu Mahen dagoen Victoriako arrantza portuko bulegotik. Egitasmoa Atun izoztuaren sektorearen ekimenez (ANABAC y OPAGAC) sort zen, Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak finantzatzen du, Seychelleetako Arrantza Agintaritzaren (SFA) babesa dauka, eta bere helburua da arrantzari buruzko datuak eta lagin biologikoak hartzea, ontzietako behatzaileak prestatzea eta moni-torizazio elektronikoko sistemen garapena bultzatzea, Indiako Ozeanoko baliabide naturalen erabilera jasangarri eta arduratsua bermatu ahal izateko.

AZTIk Seychelleetan duen bulego iraun-korraren helburu nagusia da Indiako Ozeanoan diharduen espainiar flotaren jarduera modu integral eta zientifikoan monitorizatzea, tunido tropikalen popula-zioen ebaluazioa hobetzeko behar den informazioa jasotzeko xedearekin. Victo-riako portuko instalazioetan atun popula-zioen dinamikei eta ingurunearekin dituz-ten harremanei buruzko ikerketa zorrotza egiten da, arrantzarekin dituzten interak-zioak barne. Postuan deskargatzen ari diren ontziekin duten komunikazio etengabeari esker, informazioa lortzen da helburuko espe-zieen zein helburukoak ez direnen harra-paketei buruz, eta ontziko bertako prakti-kei buruz (helburukoak ez diren espezie oso sentiberak askatzea, hala nola marra-zoak, erraiak eta dortokak; eta arrain kontzentrazioko dispositiboen biodegra-dagarritasuna eta saretzearen aurkako propietateak), eta jitoko arrainak kontzen-tratzeko dispositibo kopurua ere egiazta-tzen da (DCPD edo FAD). Halaber, detek-

zio ekipamenduen, komunikazioaren eta arrantzategiaren ahalmen operati-boaren gaineko datuak hartzen dira. Indiako Ozeanoko Atunaren Batzor-dearen proiektuari erantzuteko (IOTC), intereseko espezieen populazioaren egiturari buruz, bulego iraunkorra atu-nontzietako bertako behatzaileek mare-etan jasotako laginak zentralizatzear eta monitorizatzear arduratzen da (oto-litoak, muskuluak eta hezurrak), eta berdin kontserba fabriketan jasotzen diren laginekin, lehorrean edo portuan, deskargetan zehar. Bulegoak laginak AZTIri bidaltzeko jarduerak kudeatu eta antolatzen ditu, eta AZTIIn prozesatu eta analizatu egiten dira, aztertzeko. Halaber, AZTIk Mahen daukan instala-zioan herrialde hartako behatzaileak ontzian bertan prestatzen ari dira, etor-kizunean programa erregional batean sartu ahal izateko estandarrak betez. Datuak behatzaileen bidez jasotzea funtsezkoa da, batez ere praktika onak egiaztatzeko.

Atun harrapaketa jasangarria eta arduratsua
Egitasmoa 2016an abiarazi zen, Eusko Jaurilaritzaren laguntzarekin, eta AZTI eg-itzen ari den ekintzen barruan kokatzen da, atun izoztuaren sektorearekin batera, baliabide naturalen epe luzerako iraun-kortasuna bermatzeko, ustiapen eta kudeaketa praktikarik onenen bitartez, ezagutza zientifikorik onenaren gainean oinarrituta. Ildo horretan, Atunontzi Izoztailleen Armadoreen Elkar-te Nazionalak (ANA-BAC) eta Atunontzi Izoztaille Handietako Ekoizle Elkartuen Erakundeak (OPAGAC) Praktika Onen Kode bat ezarri zuten 2012an, selektibitatea hobetzeko, atuna-ren harrapaketa jasangarria eta ardurat-sua egiten laguntzeko hainbat praktika sartuz.Kode hori aplikatuz lortu nahi dena da arratza tresnen selektibitatea hobe-tzea eta arrantzu arduratsu eta jasangar-riago garatzea, nahigabeko harrapaketa ahalik eta gehien murrizteko, batez ere itsas dortokei eta marrazoei dagokienez.



HAZIk kudeatzen dituen elikagai produktuen markak %7 igo dira fakturazioan 2016arekin alderatuta

testua eta argazkiak N. H.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak Bittor Orozek eta HAZI Fundazioko zuzendariak, Asier Arrese, HAZIren 2017ko Urteko Memoria aurkeztu zuten Vitoria-Gasteizko Abastos Merkatuan. Aurkezpenean, HAZI sektorea egituratzeko eta Euskadiko elikadura katea indartzeko egiten ari den esfortzuaren barruan, 2017an zehar egin diren aurrerapen esanguratsuak azaldu ziren.

Horren adibidea sagardoaren sektorea da, izan ere, ekainean jada merkaturatu ziren Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako lehen botilak. Jatorri deitura duten sagardo botila guztiak bertako sagarrekin egin da daude %100ean. Berez, jatorri izendapenaren helburu estrategikoetako bat da

hori: bertako sagarraren aldeko apustua indartzea eta sustatzea. Horretarako, jatorri deituraren araudiaren barruan Euskal Herriko 115 sagar mota sartu dira, izaera desberdinekoak. 2017an 1.320.000 litro bideratu dira jatorri deiturara, eta asmoa da datozen urteetan kopuru hori handitzea. Halaber, 200 hektarea sagasti erabili dira aipatu sagardoa egiteko. Hori guztia eszenatoki partekatu bat eratzeke testuinguru baten barruan, eta lanerako espazio komun baten barruan, Euskadiko Sagardo Naturala sustatzeko. Finean, helburua da sagardoa tradizio handiko nekazaritzako produktu moduan duintzea, eta sagardoaren eta bere kalitatearen eta berrikuntzaren alde egitea, etengabeko hobekuntzarako alderdi moduan, eta sagardoaren kultura bat sortzeko estrategiaren oinarri moduan.

2017an, gainera, nabarmen indartu da Basque Label harategien proiektua, eta marka horren pean hainbat harategi ireki dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Marka berriarekin harategi tradizionalen irudia eta kontzeptua aldatu nahi da, eta harategiek Euskal Herriko abeltzainekin eta kalitatezko produktuekin duten konpromisoaren balioa agerian jarri. Halaber, HAZI plataforma informatikoak garatzeko egiten ari den lana azpimarratu daiteke, informazio eta kudeaketa sistematik integratzeko, abangoardia teknologikoan egongo diren tresnak eskuratu ahal izateko. 2017an lanean jarraitu dugu erakundeen arteko harremanak hobetzea lortzeko, sektoreko erakundeen arteko komunikazioen egituraketa hobetzeko, eta Euskadiko Elikaduraren Balio Katea osatzen duten enpresen kudeaketa



errazteko eta lehiakortasuna hobetzeko irtenbide teknologikoak emateko. Bittor Orozek azpimarratu zuenez, une hauetan sektorea eta bere kate maila guztiak egituratzeko aukera dago, kateko guztien arteko zeharkako lankidetzaren bitartez gizarteak etorkizunean izango dituen premiei begira egiten dituen eskareiei erantzuteko. Sailburuordeak gehitu zuenez “aukera bat da produktu berriak sortzeko, eraginkorrakoak eta iraunkorrakoak izateko, jarduera berriak sortzeko, negozio eredu berriak eratzeko eta inbertsiogileak eta nazioarteko turismoa gastronomiaren eta elikaduraren ekosistemara erakartzeko, Euskadik duen bezalako sistemara, nazioartean erreferentziazkoa baita”.

Eusko Label
2017. urtea, oro har, positiboa izan da Eusko Label markaren pean bermatutako kalitatezko produktuentzat. Aipagarriak da Arabako Patataren, Euskal Baserriko Txerriaren eta Euskal Baserriko Arrautzaren ibilbidea. Euskal Baserriko Arrautzak hazkunde graduala izan du ekoizleei eta ekoizpenari dagokienez: erregistratu diren 17 ekoizleek 20.600.000 arrautza ekoizti dituzte gutxi gorabehera. Produktu horretan, gainera, nabarmen handitu da produktuaren komertzializazioa HORECA kanalean.

Produktua gure baserritarrek ongizate baldintzarik onenetan hazitako oiloetatik dator, garapen harmoniatsuarekin, aire zabaleko hazkuntza sistema baten bitartez. Arabako Patatari dagokionez, berriz, oraindik ez dago behin betiko daturik, izan ere, kanpaina indarrean dago oraindik, baina, zantzu guztien arabera, Eusko Labelarekin identifikatutako ekoizpena 3.500.000 kilo baino gehiago izango dela espero da. Azken urtean 3 nekazari berrik egin dute apustu euren patataren ekoizpena ziurtatzeko (guztira 15 dira), eta azalera %15 handitu da. Sektorean freskoan kontsumitzeko egokiak izango diren aldaera berriak garatzen eta ikertzen jarraitzen dute, baita transformazio prozesuak lantzen ere, kontsumitzaileari kalitate hobea eskaintzeko. Euskal Baserriko Txerriaren haragia kalitate eta berme sanitario handiko produktua da, Euskadin hazi, hil eta zatikatutako animalietatik datorrena. Aire zabalean hazten dira, animaliaren ongizatea errespetatuz, eta bere produkzio fase guztiek kontrol zorrotzak betetzen dituzte, HAZIk ezarritako Erregelamenduaren arabera. 2017an zehar, erregistratutako ekoizleen kopurua %25 handitu da, eta Eusko Label kalifikazioa duten kiloak ere %12,5 gehiago dira. Guztira 925.000 kilo inguru ekoizti dira.

Estimatutako fakturazio datuak
HAZIk zuzenean 3 marka publiko eta ofizial kudeatzen ditu: Eusko Label, Euskal Baserri eta Euskal Herriko Kantauriko Kontserbak (Hegaluzea eta Antxoa). 2017an produktu horien fakturazio estimatua %7 igo da 2016arekin alderatuta, hain zuzen ere 152.437.339,97 euro fakturatu dira.

Jarraian produktu bakoitzaren eboluzioa ikusiko dugu:

Eusko Label
2017: 145.035.237,14 euro, %6ko igoera.
2016: 137.014.358,09 euro.

Euskal Baserri
2017: 5.303.890,83 euro, %62ko igoera.
2016: 3.256.032,07 euro.

Euskal Herriko Kantauriko Kontserbak
2017: 2.098.212 euro, %13ko beherakada.
2016: 2.413.392 euro.

Produktu berriak
Produktu batek Eusko Label ezaugarria lortzeko prozesua neketsua da. Aurretiaz egin beharreko zeregin batzuk daude, hala nola ekoizpen eta eraldaketa sektorearen azterketak, merkaturatze kanalenak eta merkatuarenak, baita produktuaren izaera berari buruzkoak ere. Azterketa horietatik abiatuta, bere ezaugarri guztiak erregelamendu batean zehatz-mehatz definitzen dira, baita ekoizteko, merkaturatzeko, on-tziratze eta etiketatze modua eta kontrol sistema ere. Une hauetan Eusko Label produktu berriak gehitzeko aukera lantzen ari da, eta hainbat barazki eta fruta aztertzen ari dira. Horrez gain, auri Eusko Labelekin landutako produktu berriak merkaturatuko dira: Arabako Patata aurre-egosiak; Eusko Labeleko behi haragiarekin egindako albondigak, biribilkia saltsan, haragia arrautza-irinetan pasatua, lasagna eta sukalkia; eta Ibarrako Piparrarekin egindako pipersaltsa. Eusko Labelekin egindako edo prestatutako produktuen ezaugarria da bere osagai nagusia edo nagusiak Eusko Label bereizgarria duten produktuak direla.



19 jóvenes inician este año sus proyectos de investigación en el sector primario, becados por el Gobierno Vasco

texto y fotografía N. Haig

El director de Calidad e Industrias Alimentarias del Gobierno Vasco, Peli Manterola, recibió en las instalaciones de la Granja de Arkaute a los 19 jóvenes, 13 chicas y 6 chicos, investigadores y tecnólogos, que han conseguido las becas financiadas por el Gobierno Vasco para ampliar su formación en áreas científicas y empresariales relacionadas con los sectores agrario, pesquero, alimentario y forestal.

Estas becas se enmarcan en la decidida política que el Gobierno Vasco viene desarrollando de cara a avanzar en la formación de los futuros profesionales y fomentar la actividad de I+D+i en toda la cadena de valor de la industria alimentaria, actividad que se considera estratégico para conseguir un sector primario más moderno y competitivo. El primer año en el que se concedieron fue 2007 y desde entonces se han financiado un total de 72 becas para jóvenes investigadores y 104 para jóvenes tecnólogos. En concreto, este año se han convocado doce becas para jóvenes del Programa de Personal Investigador en Formación (predoctorales) y diez becas del Programa de Formación de Personal Tecnólogo en el entorno científico-tecnológico y empresarial

del sector agropesquero y alimentario vasco, de las que finalmente se han cubierto 19. En conjunto, contarán hasta el año 2022 con una dotación aproximada de 1.300.000 euros para las becas propiamente dichas y de cerca de 200.000 euros para la adscripción a la Seguridad Social.

Temática de los proyectos

Según el área de investigación, algunos ejemplos de la temática de los proyectos son:

- **Agraria:** control agroecológico de plagas y enfermedades en cultivos en cultivos extensivos y viñedo.
- **Alimentaria:** desarrollo de nuevas

metodologías sensoriales para medir la conducta alimentaria en población con necesidades específicas.

- **Animal:** racionalización del uso de antibióticos en las especies productivas.
- **Pesquera:** towards and integrated assesment of de Bay of Biscay marine ecosystem.
- **Medioambiente:** valorización de residuos marinos.

Los centros destino en los que se desarrollarán son Azti-Tecnalia, Neiker, Leartiker (Centro Investigación en Tecnología de Alimentos), Lactiker (Grupo de investigación de la UPV/EHU Calidad y Seguridad de Alimentos de Origen Animal y la Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa de la UPV/EHU.

Duración y dotación

En el caso de ayudas destinadas a personal investigador en formación, la duración del contrato es de un año, prorrogable por períodos anuales. En ningún caso la duración acumulada del contrato inicial más las prórrogas puede exceder de cuatro años. Respecto a las ayudas destinadas al programa de formación de personal tecnólogo, si bien el Decreto regulador contempla la posibilidad de ayudas con duración de uno o dos años consecutivos, en este caso todas son otorgadas han sido otorgadas para dos años de duración.


En cuanto a las cuantía de las ayudas, el personal investigador en formación (becas predoctorales) percibirá 18.574 euros el primer y segundo años, 19.833 el tercer año, y 24.555 el cuarto. Las personas beneficiarias disfrutarán, además, de una ayuda complementaria cuyo importe máximo a percibir por ayuda no sobrepasará la cuantía de 2.000 euros anuales y que servirá para sufragar los gastos de matriculación en cursos de doctorado, asistencia a congresos científicos y jornadas de trabajo, estancias cortas en otros centros de investigación, otros cursos, etc.

Por lo que se refiere a las ayudas de Formación de personal tecnólogo tendrán una dotación económica de 13.000 euros anuales, más las cuotas a la Seguridad Social. Las personas beneficiarias disfrutarán, además, de una ayuda complementaria cuyo importe máximo a percibir por ayuda no sobrepasará la cuantía de 1.000 euros anuales y que servirá para sufragar, previa su justificación, los gastos de asistencia a congresos científicos y jornadas de trabajo.

KOMIKIA CÓMIC

Íñaki Cerrajería






Itsas planktonaren tamaina gakoa da bere sakabanaketa eta banaketa globalerako

testua A. T. · argazkiak A. T.

AZTIk gidatutako hainbat ikerlarik itsas planktonaren tamaina bere sakabanaketa eta banaketa globalerako gakoa dela frogatzea lortu dute, Nature Communications aldizkariak bere azken alean argitaratutako artikuluan jasotzen duenez. Aurkikuntza garrantzitsua da, planktona itsasoko elikadura katearen oinarria baita, arnasten dugun oxigenoaren %50 sortzen baitu eta, aldi berean, atmosferatik CO₂-a kentzen baitu. Funtzio horiek planktona osatzen duten espezieen banaketaren eta organismoen tamainaren araberakoak dira.




AZTIk gidatutako nazioarteko ikerketak dioenez, plankton organismoak zenbat eta handiagoak izan, komunitateen arteko konexioa orduan eta txikiagoa da.

Planktona osatzen duten espezieen banaketari eragiten dioten faktoreak zein diren ezagutzea funtsezkoa da aldaketa globalak itsas ekosistemaren funtzionamenduari nola eragingo dion jakiteko.

Emaitzek aditzera ematen dute ingurumen faktoreak baino garrantzitsuagoa dela sakabanaketa.

"Large-scale ocean connectivity and planktonic body size" artikuluan, nazioarteko ikertzaile talde batek alderantzizko harreman bat aurkitu du plankton talde batzuen eta mikro-nektonen sakabanaketa eskalen eta horien beraien tamainaren artean. Ikertutako taldeek komunitate eta tamaina zabala hartzen dute, bakterioetatik hasi eta arrain meso-pelagiko txikietara, mikroalgetatik eta zooplanktonetik igarota. "Ozeanoek luraren ingurune jarraiturik handiena osatzen dute, eta epe luzera itsasoko ekosistema guztiak elkarren artean konektatuta egongo dira korrante ozeanikoen bidez", azaldu du Ernesto Villarinok, AZTIko ikertzaile eta ikerketaren lehenen egileak. Hala ere, adierazi duenez, "bereizitako azpipopulazioen bidezko konektibitate biologikoa edo indibiduen elkartrukea ez da uniforme, bere sakabanaketarako oztopoak baitaude. Planktona osatzen duten espezieen banaketari eragiten dioten faktoreak zeintzuk diren ezagutzea funtsezkoa da aldaketa globalak itsas ekosistemaren funtzionamenduari nola eragingo dion jakiteko".

Ikerketaren emaitzek ebidentziak ematen dituzte sakabanaketa ingurumenaino garrantzitsuagoa dela frogatzeko (hala nola, itsasoko tenperatura eta nutrienteak), plankton globalaren dibertsitatearen banaketari dagokionez. Ikerketan, AZTIko ikertzaileekin batera Espainiako, Estatu Batuetako, Britainia Handiko eta Saudi Arabiako instituzioetako ikerlariak aritu dira. Bigarren emaitzak adierazten du plankton organismoaren tamaina alderantziz proportzionala dela bere abundantzia lokalarekiko eta sakabanaketa eskalarekiko, hau da, plankton organismoak zenbat eta handiagoak izan, orduan eta txikiagoa dela komunitateen arteko konexioa. Hori gertatzen da espezie txikiak ugariagoak direlako eta korronteek gehiago sakabanatzen dituztelako. Ikerketaren datuak Malaspina 2010 zirkumnabigazio espediziotik eskuratu ziren, ozeano sakoneko ekosistemaren eta biodibertsitatearen inbentario koherente eta bereizmen handikoa sortu baitzuen. Orain argitara ematen den artikulua giltzarria da itsasoko biodibe.




Neiker convierte residuos agroalimentarios en aceite a través del cultivo de microalgas

texto N. T. · fotografías N. T.

Neiker-Tecnalia ha desarrollado un proceso para el cultivo de la microalga Chlorella que permite obtener más del 50% de su peso en forma de aceite si se cultiva en determinadas condiciones. El aceite generado a partir de las microalgas destaca por su elevado contenido en ácido oleico y palmítico y porque se puede transformar en biodiesel que cumple los estándares marcados por la ley que regula la venta de biocombustibles.

La clave para lograr este aceite radica en el medio de cultivo que se emplea para el crecimiento del alga: está compuesto en más del 80% por nutrientes obtenidos a partir de residuos orgánicos como linaza, restos de ciruelas y de conservas de maíz o peladuras de patata. Otro de los residuos utilizados es

la propia biomasa del alga una vez desgrasada, que está compuesta mayoritariamente por proteína e hidratos de carbono. Lo más destacable es que el uso de estos residuos como nutrientes en el medio de cultivo ha implicado un incremento del 30% en la productividad del proceso. La nueva estrategia de bioeconomía adoptada por la Unión Europea pone de manifiesto la necesidad de promover la investigación en torno a nuevos recursos biológicos que faciliten la diversificación de las cadenas de valor existentes. Las microalgas son un ejemplo de este tipo de recursos. El cultivo de estos vegetales microscópicos permite obtener un amplio rango de productos de valor económico, al tiempo que se alinea de manera adecuada con los aspectos necesarios de sostenibilidad medioambiental.



El aceite producido es de buena calidad y se puede transformar en biodiesel que cumple los estándares marcados por la ley que regula la venta de biocombustibles.

El proceso para lograr el aceite forma parte del proyecto CYCLALG, cuyo objetivo es desarrollar un modelo de biorrefinería en torno a las microalgas.

Las microalgas, materia prima para obtener bioproductos

Una de las características más reconocidas de los cultivos de microalgas es su elevada productividad, superior a la de cualquier otro cultivo vegetal. Además, por su riqueza en proteínas, lípidos y carbohidratos las microalgas se consideran actualmente como una materia prima de alto valor para su explotación en diferentes sectores económicos.

Su composición química convierte a las microalgas en una materia prima (biomasa) con alto potencial para el desarrollo de biorrefinerías (producción integrada de insumos alimenticios, productos químicos y combustibles). Más allá de su potencial comercial, el cultivo de microalgas se puede considerar como una vía interesante para el desarrollo de nuevas estrategias de valorización de residuos muy beneficiosas para la economía circular.

CYCLALG, un proyecto para lograr biodiesel vía cultivo de microalgas

NEIKER-Tecnalia, entidad pública del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco, es el coordinador de CYCLALG, un proyecto de I+D+i que tiene como objetivo desarrollar y validar procesos tecnológicos que permitan mejorar la rentabilidad económica y la sostenibilidad medioambiental del proceso de obtención de biodiesel vía cultivo de microalgas. El proyecto adopta los principios de la bioeconomía circular y trata de mejorar el valor de la biomasa de microalgas mediante el uso eficiente de recursos y el alargamiento de la vida útil de los residuos.

El proyecto CYCLALG es un programa de cooperación territorial España-Francia-Andorra en el marco de POCTEFA 2014-2020 y en el mismo participan, además del coordinador NEIKER-Tecnalia, los siguientes socios: Fundación CENER-CIEMAT, Fundación Tecnalia Research & Innovation, Asociación de la Industria Navarra (AIN), Association Pour L'environnement et la Securite en Aquitaine (APESA) y CATAR-CRITT Agroressources. La última reunión periódica del proyecto se ha celebrado recientemente en las instalaciones de NEIKER-Tecnalia en Arkaute.

El objetivo final del proyecto es desarrollar un modelo de biorrefinería en torno a las microalgas, lo que significa explotar la biomasa de microalgas de una manera integral, optimizando los flujos de recursos, materiales y energía, y dando lugar a múltiples productos comerciales. El reto es obtener al menos cinco productos comercializables a partir de la microalga Chlorella: dos productos energéticos (biodiesel y metano), un concentrado rico en aminoácidos, un fertilizante de uso agrario y biomoléculas para la industria cosmética.

